

[b]

**BARREN**

ELGOIBARKO ASTEKARIA

544. zkia.

XIII. urtea

2005eko irailaren 30a

J. A. Arrillaga eta "Lagun"

**«Artzain eta txakur iaioak,  
ardien ondoan jaioak»**



# Udal Euskaltegira goaz. Bazatoz gurekin?

Vamos al Euskaltegi Municipal, ¿te apuntas?



## Matrikulatzeko azken egunak!

**UDAL**  
EUSKALTEGIAK



[www.udaleuskaltegiak.net](http://www.udaleuskaltegiak.net)

**DEBABE Udal Euskaltegien Mankomunitatea**

Nafarroa Enparantza 2 · ELGOIBAR

Tel.: 943 74 27 31

[elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net](mailto:elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net)

Ordutegia: 9:00-13:00 / 15:30-19:30

“Gomendatzen dizut...”

# saria

Zure oporrak gomendatu nahi dizkiguzu?  
Kontaguzu zein den zure herri, hondartza,  
mendi, ostatu edo dena delako kuttuna  
eta sari bat irabaziko duzue!



Bidali mezu labur bat edo argazki bat testuarekin  
[elg.gzerbitzua@terra.es](mailto:elg.gzerbitzua@terra.es) helbidera edo utzi zure gomendioa Gazte Bulegoan.  
Partehartzailerik guztien artean bi sari zozketatuko ditugu!

- 17 urtera artekoentzat: CD portatila MP3 sarrerarekin
- 18 urtetik gorakoentzat: Asteburua 2 pertsonentzat landetxe batean.

GOMENDIOAK AURKEZTEKO EPEA: urriak 25.

ZOZKETA: urriak 26.



Elgoibarko Gazte Bulegoa  
Kultur Etxea, Nafarroa plaza

Tel.: 943 74 14 61

[elg.gzerbitzua@terra.es](mailto:elg.gzerbitzua@terra.es)



IBAN URIZAR



MIKEL KORNEJO

## ZOZOAK BELEARI...

Ieup Mikele!!!

Uda ostean datorrena datorrela ere denboraldi berria hasi dugu. Topa egin dezagun udazkenagatik.

Udarak utzi dizkigun argi izpi hauek ez gaitzela konfunditu, neguaren atarian esertzea tokatzen zaigu, eta nekez mantenduko dugu udarak utzitako *morenoa*.

Beno, zentratzea eta erronka berriei aurre egitea egokitu zaigu. Denboraldi berri honetan gutun goxo eta garratzak trukatu ahal izatea espero dut, gehien bat atal honen jarraitzaile sutsuen irribarrea okertu ez dadin.

Gogor hasi da *udaostea*, eta pare bat gauza aipatuko dizkizut motzean, dudak, zeuk ere duda dezazun.

Badirudi EEBBko kostan Katrina eta Ireneren artean kaosa sortu dutela. Emakumeen izenak, zergatik? Errazago identifikatu genezan hondamendiaren izatea? Emakumearen indarraren metafora al da? Misoginoak ote zientifiko eta neurtzaile hauek?

Ene lagun batek esaten duen bezala, *gizonezkoak sinpleak zarete*. Sinpleegiak agian.

P.D: Tarte hau zozobe kide bat zoriontzeko aprobeztatuko dut, emakumea berau, idazlea, gaztea... Aupa Uxue!! Zorionak. Futbolarietaz aparte idazleen *kantera* ederra dugu Elgoibar.

«Neguaren atarian esertzea tokatzen zaigu»

IBAN

«Niretzat udazkena hasi besterik ez da egin»

MIKEL

Joan da uda, Ibane!

Egutegiaren orriak egunean bat erortzen dira, eta niretzat udazkena hasi besterik ez da egin, iritsiko da negua... Badakizu zein den botila erdi hutsik edo erdi beteta ikustearen arteko desberdintasuna?\*

Estatu Batuetan gertatu denak pentsamendu hauek ekartzen dizkit burura:

1- Natura apolitikoa da. Estatu Batuak ezin izan dira honetarako prest egon, gizarteak ez daukalako horrelako hondamendien oroipenik. Neokatoliko askori galdetuko nioke ea gertatua Jainkoaren akatsa izan den edo hori merezi izateko pekatutxoren bat ezkututzen al duten.

2- Gauza txar bat are eta okerragoa da gertatzen zaionaren garrantzia handitzen den heinean. (Indiako urteroko uholdeak urtero dira- eta Indian gainerat-, bertakoak ohituta egongo dira, ez?)

P. D.: \*Botilaren edukiarekiko ikuslearen egoera. Ez al da zuzenena botila erdi ur dela esatea?

P. P. D.: Duda bat, Ibane: homosexualak emakumeen sentikortasuna dute. Baina emakumeak oso konplikatua dira, eta ez dira ba homosexualak gizonezkoak gustatzen zaizkien gizonak? Galdu naiz... Komentario hori egin dizun laguna ez da, bada, sinple samarra izango bera ere?



ESTATU BATUAK NORA DOAN EZ JAKIN ARREN, HELMUGARA ABIADURA ERREKORRA TXIKITUZ IRISTEA ERABAKI DUEN HERRIA DA



Laurence J. Peter

## Bat ez, bi!

Urtebete baino gehiago pasa da ostegunetako merkadilloaren kontua hasi zenetik. Merkatariek borrokan aritu dira beraien postura defendatuz, eta Elgoibarko herriak bere babesa eskaini dio. Udalak ez du amore ematen eta merkadilloa Sigmara eramatea ikusten du aukera onena moduan. Eta orain, bat-batean, azoka bat ez, bi ditugu herrian! Eta herritarrok non erosi behar dugu? Badirudi merkadilloaren alde eta herritarren alde borrokan dihardutenak eliza azpikoak direla, eta Plaza Txikira joan direnak amore eman eta Udalarri arrazoia eman dietenak. Baina, Plaza Txikian saltzen duten produkturen bat behar badugu, zer? Kontzientziak ez erosteko esaten dit, eta poltsikoak beriz, kontrakoa. Kontraesan horretan murgilduta nabil azken ostegun hauetan. Noiz arte jarraituko dugu honela? Ez al du herriak behin eta beriz, argi eta garbi azaldu merkadilloa herrian nahi duela? Plaza Handia edo Txikia berdin zaigu, baina mesedez, erdigunean egon dadila. Denon hoberako da, saltzaileentzat, herriko dendarietzat, herritarrentzat eta herriarentzat, eta Udalak azken finean, herriaren alde lan egin behar du.

A.A. EHNA M8255693G

## Batzuei bai eta besteei ez!

Badirudi araudi eta lege guztiek ez dutela guztientzat berdin balio. Ostegunero azoka Plaza Handian jartzen zuten saltzaileek urtebete pasa daramate Udalarekin eztabaidan, bertan postuak jartzea galerazi baitzien Udalak. Trafiko arazo larriak sortzen zirela, herriko erdigunea autoz libratu nahi zela eta antzerako arrazoiak jarri zizkieten. Hala dela uste dut, oraindik ere ez baititut argi arrazoiak. Kontua da, joan zen zapatuan Plaza Handia beriz ere beraien produktuak saltzen zituzten merkatariz beteta zegoela, baina ez ziren ostegunetako azokakoak. Txankakua Merkatarri Elkarteak antolatutako feria ospatu zen eta herriko dendariak kalera atera ziren beraien produktuak saltzera. Ez daukat ezer Txankakuakoen aurka, alderantziz, jai polita prestatu zuten eta berari antolatzea oso ondo iruditzen zait, herriari bizia ematen dioten herriko merkatariek baitira. Bestela ere nahikoa lan dute merkatal zentru erraldoiei aurre egiten, horrelako ekintza bat baino gehiago antolatu beharko dute aurrerantzean ere, eta antola ditzatela. Hala ere, ostegunero azokatxoak jartzen zuten merkatarri ibiltarietaz oroitu nintzen.

J.U. 44132746R

## ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
3. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
4. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
5. Ez dugu gaztelera datorren eskutitz argitaratuko.

E-POSTA

[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

# [b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12 • Faxe: ☎ 943 74 37 04  
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04  
E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Mikel Comejo, Juanito Garatza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurmuxaga, Imanol Larranaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Iban Urizar, Karko KE, Urruzuno, Unai Villena, Alaitz Vives **ESAERA ZAHARRA** Gatxon Garatzen liburukit **INPRIMATEGIA** Geru **TRADA** 4.360 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.





## KEXAK

• Herritar batek esan digunez, **Mintxetan jende askok gaizki aparkatzen du autoa**: “Mintxetako aparkalekua handia den arren, jende askok ez du autoa behar den lekuan aparkatzen. Normalean aparkalekuan beti egoten da tokia, baina askok ate parean edo autobusen aparkalekuan aparkatzen dute. Kirola egitera doan jendea izanik, lotsagarria da oinez bost metro ez ibiltzeagatik autoa gaizki aparkatzea. Tokirik egongo ez balitz ulergarriagoa izango litzateke, baina Mintxetan autoa ondo aparkatzeko tokia soberan dago”.



## TXALOK



• Herritar batek **Bernardo Ezenarro kalean piboteak jarri izana eskertu nahi du**: “Lotsagarria da Bernardo Ezenarro kaleak jasaten duen egoera. Auto mordoak egoten da bigarren ilaran aparkatuta, eta bertatik pasatzeko arazo larriak izaten dira. Piboteak jartzen dituztenean jendeak errespetatu egiten ditu, eta ez da inor traban gelditzen. Hala ere, beste metodoen bat bilatu beharko litzateke, adibidez, pibote fijoak jarri daitezke, betirako piboteak”.

Atal honetarako kexak, txalok edo galderak helarazteko:

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12

## Lanbroa



**Gosariak  
Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera  
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06



## Bulkatu S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

### MEKANIZATUEN TAILERRA



PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA



## URRUZUNOREN Luma

### Gaua

Gau esnatua Goizaldea da. Nolanahi ere, gauak, lotan beharrean, esna dagoela dirudi. Izan ere, ohi baino etxe gehiagotan dago pizturik argia. Etxe horietariko batean, poetak, bere bakardadean, poemak idazten ditu bere maiteñoarengan pentsatuz. Nonbaiten telebista piztu dute, filme bateko protagonistak solasean ari baitira. Baina auto baten etorrerak ahotsak estali ditu. Ibilgailua orroaka dator bere motor indartsuarekin. Gainera, musika ozen jarrita darama, diskoteka mugikor bat balitz bezala. Zarata jasanezina aireari itsatsi zaio, kotxea urrundu den arte. Bat-batean, lainoen artetik ilargia agertu da, festara. Maitemindu bikote batek kalean behera egin du, etxeratzeko inolako presarik gabe. Haien ondotik, zakur batek kalea gurutzatu du. Jabearen bila joango ote da?

Jon Eugi



## BAI ESAN?

**Ma JESUS OTAEGI**

TXANKAKUA MERKATARI  
ELKARTEKO PRESIDENTEA

*Joan zen larunbatean Txankakua Merkatari Elkartearen V. FERIA izan zenez, Txankakua Merkatari Elkarteko presidentearekin egon gara feriarene balorazio txiki bat egin eta denda txikiei buruz hitz egiteko.*

- **Nola joan zen aurtengo feria?** Oso ondo. Gure helburua herria eta herritarrak animatzea izan da, eta gerturatu zirenen artean azokak harrera ona izan duela uste dugu. Herritar batzuk herritara gelditu ziren denda batzuk daukaten eskaintza zabalarekin, eta hori guretzako oso ona da. Aurtengoan ere, Txankakua Merkatari Elkarteak elgoibartarren partehartzea eskertu nahi du.
- **Zein da Elgoibarko denda txikien egoera?** Ez gaude momenturik onenean. Elgoibarren erreminta makinako enpresa asko dago eta hauek ere ez daude ondo eta igarri egiten da, dena kate bat da.
- **Nola ikusten duzue merkataritza txikiaren etorkizuna?** Gazteen artean batez ere, erosketa ohiturak aldatu egin dira, baina herriko denda txikiek gertutasuna, kalitatea eta bezeroenganako atentzioa eskaintzen dute, eta hori asko estimatzen da. Merkataritzak gure kaleei bizitza ematen die eta denon artean zaindu egin behar dugu.

### komikia

*Hil da gero... triki eta pandero*



Kokoe 031

## [AKORDATZEN NAIZ]



**MANOLO UNZILLA**

1934an jaioa

### «Kalia eta basarrixa»

**K**aletarra naiz. Santa Ana kalia jaixotakua naiz. Gure gaztarua gerra ostian izan zan, baiña politta izan zan. Gerria etorri arte, umetan, gure bizimodua politta izan zan. Gero gerra asuntuan kanpora jun giñan, Bilbo aldera, ihesi. Aitta gerran hil zan. Kartzelan sartu zaben, eta hantxe hil zan aitta. Altzolan jaixua zan, eta ama Elgoibarkua. Amaren gurasuak, hemenguak danak, inguruko basarrietakua, baiña aittaren gurasuak Etxarri Aranazkuak. Aittaren aittitta, Etxarrikua, lanera etorri zan Altzolara. Karrekin ibiltzen ziran.

Orduan Altzolara sartzen zan itxasua, eta juaten ziran kargak

hartzera Altzola eta Mendaro ingurura. Gure aittitta-eta ibilli ziran kargamentuekin, barkutikan ateratzen eta ekartzen herrira-eta. Nik ez dot ezagutu, baiña behixekin juten ziran kargamentu billa. Behixak karruakin. Hala esan ziguen guri amamak eta gurasuek. Hiru anai etorri ziran Etxarritik. Haren semiak bi geratu ziran Altzolan eta birek hotela eduki zaben Altzolan. Bestia Elgoibarrera etorri zan.

Ostian, gaztetan bizimodu normala egin gendun. Beti futbolian edo pelotan. Hor, Plaza Txikixan eskolakuak beti futbolian, baiña futbolian akabatzer a beti eh!



## [GURE BERBAK]

### Esapide adierazgarriak

Ahozko jardunian, elkarrizketetan eta kontakizunetan beti izaten da egitura adierazgarri biharra. Gauza bat esplikatu leike nahiko epel, neutro, edo bestela indar eta adierazgarritasun haundixagurekin. Azken hauek erabiltzen dira zeozerk harritu egin gaittuanian, baten bat harritu nahi dogunian edo baten batek ezustekoren bat eman digunian. Herriko hiztunen jardunetik etaratako adibide batzuk jaso diitut hemen:

- *Haundixa dok, ba, desgrazia hau ere neri gertatzia!*
- *Goixa zaguan behera etorritta zati haundi bat, jausitta. Baiña haundixa zulua! Bueno, ikeragarrixa baiña zulua, eh!*
- *Egun horretan, guk ezer ez zakigula, jantzi ziran danak mezatik ertenda ta, arkuva egin zigun ertetzeko. Dantza eta... bueno... sekulako mezia ere preparau zeben!*
- *Gemikatikan zihar, zela edo hala pasau, ta hango, hango desastria! Da, pasau genduan Gemika hori, eta allegau giñan Aulestira.*
- *Hara zeñ etorri dan! Hauraxe ikustia ez naban espero gau!*
- *Egin bihar da, bai, kazan. Basurdia ta txarikerixia badago hamen!*
- *Landarak ari dittuk pixkat ihartzen, da ihartzen diranian danak jauritiko jaittuat, eta kittol!*
- *Eta, holaxe juan giñan Debara, egualdi ikeragarritzko edarra ta, or ikusi genduan nola itxasuan sartze zan astillerotikan.*

Jesus Mari Makazaga



**URKIDI** AHOLKULARITZA

KONTABILITATE  
LAN  
FISKAL



HUGOTSO  
ASEGURUAK

Kalamua, 12 · ELGOIBAR  
Tel-Faxa: 943 74 18 91



**TERAPIA FAMILIARRA**  
(bikote eta banakako terapia)

**PSIKOLOGIA**

**(HARREMAN ARAZOAK:**  
bikotearen, familiarekin edo kideekin)

**(LIMEEN ETA NERABEEN ARAZOAK**

**(ANTSJETATEA**

**(DEPRESIOA**

**(ESTRESA**

**(ELIKADURA ARAZOAK**

**(AUTOESTIMA**

ARIBEA LEONOR  
milian erajika: 676 61 70 55 BILBAO KALDI-E.

### «Musikaz baino, nahiago dut musikarekin bizitzea»

Zinemaldiko eraldiaren erdian aurkitu dugu Mikel Urdangarin (Zomotza, 1971) musikaria, *Dana* disko berriaren inguruan solasalditxo bat edukitzeko asmoz. Garagardotxo bana eskuan eta kazetarien joan etorrien lekuko izan ondoren, Kurasaaleko terrazan eseri gara, zinemaldiko zoo honen partaide bezala, bere diskoaz eta musikaz hitzegiteko.

• **Nola hasi duzu kurtso berria uda ostean, txikiagi edo zaharregi agian?**

Egia esan, ez txikiagi eta ez zaharregi, lanpetuegi agian. Diskoa bukatzerakoan buzoa jantzi behar da diskoaren promozioa egiteko, eta nahiz eta neketsua izan beharrezkoa da diskoa horrela ere defenditzea. Kanta berriak eta zuzenekoak egiteaz aparte horrelako lana egitea tokatzen zaio artistari.

• **Nola pasatu duzu uda, deskantsatzen?**

Ez, grabatzen pasa dut ia uda osoa. Egia esan, 2 urte inguru daramatzat disko hau lantzen,

lehenbiziko urtea neu bakarrik gitarrarekin, eta ondoren taldekideekin kantak egokitzen. Azkeneko hilabeteak entseguak egiten pasatu ditugu eta udako azken bi hilabete hauek grabatzen.

• **Neketsua izan al da estudioko lana?**

Berez neketsua izaten da estudioko lana, baina neketsua bezain harmoniaz betea izan da gurea, eta horrek beste aurpegi bat ezartzen dio estudioko lanari. Bestalde, kanta gehienak batera grabatu ditugu eta honek beste naturaltasun bat txertatzen dio grabaketari. Alde batetik oso

gogorra da horrela grabatzea, kontzentrazio itzela eskatzen duelako, baina bestalde freskotasunez jantzen dira kantak horrela grabatzean. Giro berezia du disko honek niretzat.

• **Euskal kantarien salbatzaile bezala ezarri zaituzte hainbat komunikabidetan, ados al zaude?**

Hori asko esatea da. Lehenengo eta behin, betiko kantariak oraindik ez dira jubilatuta eta ez dut uste egingo dutenik. Nik oso forma onean ikusten ditut Benito eta hauek, eta gainera ni ez nago hemen inor jubilatzeke. Izatekotan, nire lanaren

«Diskoa bukatzerakoan buzoa jantzi behar da diskoaren promozioa egiteko, nahiz eta neketsua izan»







Testua: Iban Urizar  
Argazkiak: Ander Gillenea

oinordekoa izango nintzateke, pertsona guztiak bezala. Ereindakoa jasotzen da azken finean eta norbera bere bidez arduratu behar da. Bestalde, nire izena kantari horien ondoan jartzeak pozik eta harro sentiarazten nau.

• **Euskal kantari etiketak mugatu ala definitu egiten zaitu?**

Kantariak, edozein pertsonak bezala libre amestu eta imajinatu behar du, ondoren duintasun guztiarekin bere lana plazaratzeko. Disko honek sonoritate zabala duela uste dut, paisai itxietatik oso irekietara igarotzen delarik. Egia esan, seguru nago muga gogorrenak norberak bere buruari ezartzen dizkionak direla, eta neuk ahalik eta muga gutxien jartzen dizkiot neureari.

• **Zer eskatzen diozu zeuri buruari musikarekiko, zer entzuleari eta zer industriari?**

Neure buruari, zintzotasunez eta koherentziaz jokatzeko eskatzen diot, eta naturaltasun hori mantentzen ahalegindu behar da nahiz eta ariketa zaila izan. Entzuleari aldiz ezer gutxi eskatu niezaioke, entzutea. Ariketa zaila baita ere. Industriari aldiz, bidelagun izatea eskatzen diot, eta nik nirean jartzen dudana ilusioaren erantzule izatea, besterik ez.

• **Zortzi urtetan zortzi ekoizpen, epe motzeko ibilbide luzea?**

Bai, nahiko lanpetuta ibili naiz urte hauetan. Irakaskuntza utzi eta musikara dedikatzea erabaki nuenean denbora

libre gehiagorekin aurkitu nintzen, eta denbora libre hau musika egiten jarraitzeko aprobetxatzen nuen, eta horrela ia inkontzienteki gaur arte. Zortzi urte pasa dira aurreneko diskotik eta atzera begiratu naturaltasunez egindako lana ikusten dut, inongo presiorik jasan gabe. Azken urte hau gainera ia kontzerturik eman gabe aritu naiz eta gogoia neukan berriz aritzeko.

«Ereindakoa jasotzen da eta norbera bere bidez arduratu behar da»

• **Badirudi musika industria krisian dagoela...**

Egia da ez direla garai hoberenak diskogintzarako, baina krisiak beti egon dira modan eta jarraituko dute izaten, oraingoan musikari tokatu zaio, itxoin beharko. Mundua oso azkar aldatzen ari da, eta zuhur ibili beharko da aldaketa guzti horien artean ez galtzeko. Aro berri baten atarian gaudelarik, musikaren munduak beste bizitzako edozein atalek bezala, aldaketak jasan beharko ditu. Guri,

aldaketa horietara egokitzea tokatuko zaigu.

• **Euskal musikak zein leku beteko du musika globalaren aro honetan?**

Lehenengo eta behin euskal musika konplexuez astindu behar da, oso gauza interesgarriak egiten dira bertan eta kalitatezkoak gainera, mundutik erakutsi litezkeenak. Euskal musika etiketa hori ez dadila mugatzaile bihurtu, musikarekin ere munduari begiratu behar diogulako ez gure ziborrari.

• **Euskadin R'n'rollak ez du dirurik ematen?**

Bai eta ez. Batzuk ederki asko ateratzen dute bizitzeko lain. Orain arte zortea eduki dut eta musika ofiziotzat daukat, ala eta guztiz, nik nahiago dut musikaz baino musikarekin bizitzea.

• **Elkar diskoetxearekin hasi duzu zure ibilbide berria, aldaketa garaiak?**

Gazteluperekin hasitako bidea bukatu nuen, eta orain Elkarrekin hasi dut etapa berri bat. Aldaketak, norberak erabakitzen dituen behintzat onerako izan behar dira, eta neuk ilusio handiarekin hasi dut neure abentura berri hau.

• **Zinemaldira joateko aukera izan al duzu?**

Ez dut aukerarik izan promozio kontuengatik, baina beste urtetan joan izan naiz Bingen Mendizabal taldekidearekin. Honek filmetarako musika konposatzen du eta berarekin joaten nintzen hainbat filma ikustera.

## [ PROTAGONISTA ]



Igor **Castañares**

19 lagunek hartu zuten parte joan zen larunbatean, irailaren 24an, Deban ospatu zen zaldi lasterketan, eta Igor Castañares elgoibartarra izan zen irabazlea. Zorionak! Eguraldi bikaina egin zuen eta jende ugari hurbildu zen Debako hondartzara. Ikuskizun polita eskaini zuten, eta ikusleek izugarri gozatu zuten.

Debakoa Ligako azken lasterketa izan zen, baina oraindik ez dago irabazlerik. Txapelketako final nagusia Donostiako Kontxa hondartzan jokatu da urrian, eta bertan jakingo da nor den txapelduna.

## [ NOTIZIA ]

### Bi hilabete barru bukatuko dute Santa Ana kaletik San Rokerako tunela

**S**anta Ana kaleko errotondatik San Rokerainoko tunela egiteko obrak dezente aurreratuta daude dagoeneko. TECSA enpresako Gorka Maturanarekin hitz egin dugu, eta berak esan digunez, bi hilabete barru trenbide azpiko tunela bukatuta egongo da. Maturanak azaldu digunez, aste honetan bertan bukatuko dituzte tunelaren eskuin aldeko lanak eta datorren astean ezker aldekoari ekingo diote. Guztira 13x13 metroko tunela egingo dute.

#### 700.000 euro

Lurrazpiko tunelaren obrak 700.000 euroko aurrekontua dauka. Gorka Maturanak esan digunez, beraiek lurrazpiko zuloa egin eta horrek eskatzen



dituen zerbitzuak jarriko dituzte, baina momentuz errepidea egitea ez omen dago beraien esku. Beraz, herritarren segurtasuna bermatzeko, tunela amaitu arren, errepidea behar bezala eginda egon arte ezin izango da Santa Ana kaleko errotondatik San Rokeraino joan.

## [ ZENBAKIA ]

# 100

Elgoibarko EAJk 100 urte beteko ditu bihar, urriak 1. Elgoibarko EAJ 1905. urtean sortu zen. Mendeurrena ospatzeko ekitaldi desberdinak antolatuta dituzte: Bihar gerrate zibilari buruzko erakusketa inauguratuko da, urriaren 5ean Juantxu Agirrek hitzaldia eskainiko du eta hilaren 8an Batzoki berria inauguratuko da.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Elgoibarko dendariak kalera atera ziren joan zen larunbatean, hilaren 24an. Txankakua Merkatarri Elkartek antolatuta, Merkatarrien V. Feria ospatu zen. Plaza Handira atera ziren herriko dendariak eta bertan jarri zituzten beren produktuak salgai. Etxeko txikienezako txu-txu trena eta gaztelu puzgarriak jarri zituzten. Egurdiko 13:30ean 100 euroko sei txekeren zozketa egin zen. Irabazleek erosketa txeketan jaso zuten saria. Eguraldia lagun izan zen, eta giro oso polita egon zen.

## Datorren urtera arte agurtu ziren atzo San Migel auzoko jaiak



Irailak 29, San Migel eguna izan zen atzo, eta honekin bukatu ziren Elgoibarko Aiestia auzoko San Migel jaiak. Joan zen ostiraletik hasita, ekitaldi desberdinak izan dira ikusgai, eta auzotarrak ez ezik, kaleko bizilagunak ere gerturatu dira San Migel jaietara. Gazteen Egunak eman zien hasiera jaiak joan zen ostiraletan. Gazte afaria, disko festa eta urteroko ohitura bilakatu den streptase-a izan ziren giroa berotzeko.

### Herri kirolak

Larunbat eta igandean herri kirolak hartu zuten protagonismoa. Larunbatean

Euskal Herriko Arraza Libreko Artzain Txakur txapelketa jokatu zen, eta etxeko Jose Antonio Arrillaga izan zen irabazlea "Lagun" txakurarekin. Igandean berriz, idi demak izan ziren ikuskizun nagusia. Eguraldiak gehiegi lagundu ez zuen arren, ikusle ugari bildu ziren eta apustuak ere, ez ziren gutxi izan. Azkenean Berriatuako Artaialde izan zen irabazlea.

Azken eguna atzo izan zen. Auzoko bikoteen arteko XXII. txapelketa, trikitalari eta bertsolariak, auzotarren arteko afaria eta bukatzeko Gardoki taldearekin erromeria izan ziren.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Tertuliak egitasmoan izena emateko epea zabalik dago

Elgoibarko Izarrak, Udalaren eta herriko bi euskaltegien laguntzarekin Tertuliak egitasmoa jarriko du martxan. Azaroan hasi eta ekainera arte, astean behin, euskaldun zaharrak eta berriak euskaraz hitz egiteko elkartuko dira ordubetez. Parte hartzeko interesa duten euskaldun zahar eta euskaldun berriek ondorengo telefonoetan eman dezakete izena urriaren 15a aurretik: Elgoibarko Izarra: 943 741626 (Imanol), Udal Euskaltegia: 943 74 27 31, AEK: 943 74 13 32.

### "Kudeazan" ikastaroaren 4. edizioa martxan

Debegesak antolatuta, urriaren 18an 'Kudeazan' enpresa kudeaketa ikastaroaren 4. edizioa hasiko da. Debarrenako enpresetako profil administratihoa duten emakumeei zuzendua dago. Helburua emakumeek zuzendaritza postuak lortzea bultzatzea da. Interesatuak 943820110 (Igor Elizburu) telefonora deitu edota [www.debegesa.com](http://www.debegesa.com) web orria bisitatu dezakete.

### Malaysiarak IMHn

Malaysian Spanish Institute proiektuaren baitan, Malaysiako hezkuntza ordezkariak batek IMHko instalazioak eta proiektuak ezagutu zituen joan zen astean. Egonaldian sektoreko enpresa eta ikastetxeak bisitatu zituzten eta Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Sailburuarekin egin zuten bilera.



## Nuñez anai-arrebak Perretxiko Lehiaketako irabazleak



Karakate Mikologia Elkartek antolatuta Deba Arroko XXXI. Perretxiko Lehiaketa ospatu zen joan zen igandean, irailaren 25ean. Goizean goizetik Plaza Handian jari zituzten perretxikoak ikusgai. Denetarik perretxikoak zeuden. Guztira, 27 taldek hartu zuten parte lehiaketan, eta Nuñez anai arrebak izan ziren irabazleak 1.050 punturekin. Bigarren postuan Oskar Palomo sailkatu zen 887 punturekin, eta hirugarrenak Imanol Ansola eta Ion Ansola izan ziren 708 punturekin. Aurtengoan Bernabe Mujika saria Aranzadi Elkarteko Alejandro Iñiguezek jaso zuen.



# Inkesta

Eusko Jaurlaritzak 50m<sup>2</sup>ko etxebizitzak eskainiko ditu zahar eta gazteentzat.

## 50m<sup>2</sup> nahikoak al dira etxebizitza batentzat?

**M<sup>a</sup> KARMEN GERRA**  
Etxekoandrea  
35 urte



“Bakarrik edo bikotearekin bizitzeko nahikoa da, eta nagusientzat ere bai, etxe handia garbitzeak lana dauka. Umeekin bizitzeko txikia iruditzen zait.”

**JOSE MARI GIL**  
Kamioilaria  
41 urte



“Bai. Bakarrik bizitzeko irtenbide ona iruditzen zait, baina familia bat ezin da honelako etxe batean bizi. Hala ere, egoera honen aurrean aukera ona izan daiteke.”

**FCO. JAVIER GARCIA**  
Banatzailea  
45 urte



“Ez, oso txikia da. Gutxienez 70m<sup>2</sup>ko etxeak eskaini behar-lituzke. Behin gauzak egin hasita, ondo egin behar dira. Aberatsek askoz etxe handiagoak dituzte.”

**LUIS PERALTA**  
Arotza  
49 urte



“Bai, bi logela baditu nahikoa da. Ez dago beste erremediorik, gaur egun etxe handiagoak ezin dira erosi, oso garestiak dira. Alokairua bultzatu beharko litzateke.”

## [ BAI ala EZ? ]

ETAk laster suetena adierazio duen esperantzarik bai?

**BAI %73**

“Bai, esperantza badaukat, baina esperantza baino zerbait gehiago behar dela uste dut gatazka hau konpontzeko.”

**EZ %27**

“Ez daukat esperantzarik epe motzera behintzat. Oztopo gehiegi ikusten dira. ETaren azken agiria irakurri eta gero zaila ikusten dut.”


Datorren asterako... **Bakarrik bizi direnek telefono mugikorra gehiago erabiltzen dute Telefono mugikorra finkoa baino gehiago erabiltzen al duzu?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) ERANTZUNA

**7744** zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

## [ GOMENDIOA ]



**Olatz Beitia**

**OLATZ**

Fisioterapeuta

## Fisioterapeutarengana noa

**G**aur egungo bizimodua ikusirik, osasunak inoiz baino garrantzi handiagoa hartu du. Min arraroren batengatik egunero egiten ditugun gauzak ezin ditugunean egin "fisioterapeutarengana" joaten gara. Eta betiko galdera "zeren ondorio dela uste duzu?". Erantzunak ugariak dira; lana, jolasa, kirola, ...

Ohitura txarrak eguneroko bilakatu dira eta telefonoa esku gabe mantentzeak soilik edozeini lepoko min ugari sor dakizkioke. Pertsona batek karga sentitzen duenean masajistarengana joko du eta masaje batekin edalontzitik gainezka egiten duen ur gutxia kenduko du, eta honela, ez da zaila izango gero edalontzia berriz betetzea. Fisioterapiari

baino gehiago osteopatian, edalontzitik ura ateratzea da helburua, beti ere ahaleginak eginez, lehenago dagoena gaizki ez dagoen bitartean bere horretan utziz. Honela, era batean, lehenengo lesioa aurkitzen saiatzen gara edalontzitik ura kentzeko, hau jausi eta minik ager ez dadin. Hala ere, gaur egungo gizartean, Euskal Herrian gutxienez, egoera hau utopia bat da, gure gorputzaz, kexatzen denean baino ez baikara gogoratzen.

Beraz, zuen gorputzak eta pertsonak zaintzera gonbidatzen zaituztet beti ere noren eskutan jartzen zareten ongi begiraturaz. Etxeko berogailua edonork errebisatzen ez duen bezala ez diezaiogun gure gorputza edonori errebisatzen utzi.



## [ OSASUN GIDA ]



### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak)

San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131

Astearte eta ostegunetan: 10-11:30/15-16:30/18-19:30/20-21:30

**Mendaro**

Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30

Astelehen eta ostegunetan: 20:00-21:30

### OPTIKAK

Ikus Optiko-optometriska

San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### HORTZ KLINIKAK

Nora Bastida

Azpilgoeta, 5 (MENDARO) Tel: 943 03 35 75

Asteleheneretik ostiralera: 9:30-13:00 / 15:30-19:30

Irale

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79

Zeharkalea, 8 behea (Ermua) Tel: 943 17 71 34

e-posta: irale@irale.com - weba: www.irale.com

### FISIOTERAPIA

Olatz Fisioterapia

(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala, prebentzioa, erlajazioa, masaia, reiki)

San Roke, 1 - Tel. 696 821 149

Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

### PODOLOGOAK

Iñaki Rivero

San Bartolome, 28 • Tel: 943 74 32 90

Ostegunetan: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Oinberri

Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95

Astearte, ostegun eta ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

**Gida honetan agertu nahi baduzu,  
deitu 943 74 37 04ra**

## ALAIN ULAZIA eta AITOR BASURTO

BRIGADISTAK OAXACAN

### «Mexikoko indigenak erresistentziaren eredu dira»

*Alain Ulazia eta Aitor Basurto mendarorek beste errealitate batzuk ezagutzeko aprobetxatu zituzten udako oporrak. Euskara irakasle eta filosofia ikaslea bata, hezitzaile eta antropologia ikaslea bestea, brigadista gisa izan ziren Oaxacan, Chiapasekin muga egin eta Ozeano Bareak bustitzen duen Mexikoko estatuan. Biztanleriaren %60a indigena da eta 30etik gora tribu daude. Beraiek Cotzocon-go komunitate Mixean izan ziren, Sierra Norteko mendietan. Han ikusi eta ikasitakoak gure artean zabalitzeko irrikaz topatu ditugu.*

#### • Nolatan joan zarete brigadista Mexikora?

Askapena, ezker abertzaleko talde internazionalistaren bitartez izan gara. Brigadistak behatzailearen lana egiten du. Aurreiritzi barik entzun, aditu, ikusi eta ikastera joan gara. Batez ere ikastera, pobre eta aurrerapenik gabe egon arren askoz gehiago da handik hona ekartzekoa, alderantziz baino. Bestalde, herrien arteko elkartasunak ez dauka zerikusirik pentsamendu kristauro elkartasunarekin. Gure ustez nazio txikiak gara benetako nazioak, besteak gezurretazkoak dira. Gezurretazko inperio handizaleen aurka txikiok elkarrekin erresistentzen dugu. Ideia horretan oinarritzen da elkartasun mota hau.

#### • Oaxacara joan zareten lehenengotariko brigadistak izan zarete, ezta?

Bai. Orain arte Chiapasera joaten ziren baina arazo berberak dituzten indigena asko daude zapatisten eraginpeko eremutik kanpo. laz kontaktuak egin eta aurten joan gara lehenengo brigadista euskaldunak. CIPO (Consejo Indigena Popular de Oaxaca) delakoarekin mugitu gara. Zapatisten

helburu berberak dituzte: lurra, demokrazia eta justizia. Halere, borrokarako ekintza zuzena eta baketsua aldarrikatzen dute. Altxamendu amatuak burutu dituztenean berehala kendu dituzte mapatik. Indigenen borroka soziala batzen du kontseilu honek Oaxacako estatu guztian.

#### • Zer moduzko harrera egin zizuten komunitate indigenetan?

Harrirta geunden denok, eurak eta gu. Askok ez zuten zuri bat (guero) sekula ikusi. Hizkuntza zailtasunak tarteko, '¿a qué venis aquí?' izan zen lehen galdera. Ikusi eta ikasi egin nahi genuela esan genien.

Are harrituago geratu ziren.

Antza denez, ez zuten uste guero batzueri irakasteko moduko ezer zeukatenik.

#### • Nolako zen zuen egun bat?

Altu egon arren eremu tropikalean dago Cotzocon eta giro atsegina egiten du urte osoan. Egunero familia ezberdinekin gosaldu, bazkaldu eta afaltzen genuen. Seme-alabak bidaltzen zizkiguten gu txabolaraino gidatzeko. Emakumeen ehundegian pasatzen genuen bestela eguna, eurite garaia zena. Bertan umeekin jolastu, havei eskolako zerbait irakatsi, morroskiloak egin, eta sarri ezer ez ulertu arren gustora egoten ginen, eurak bezalaxe barrezka.

#### • Ze hizkuntza berba egiten dute?

Mixez. 45.000 lagunek hitz egiten dute 4000 bat urte ei dauzka. Oraitxe





ari dira idazketa arautzen, Mixe batua bezalako zerbait egiteko. "Mikëpye" diote egunonak emateko.

## • Nolako bizimodua daramate?

Lur emankorra dute. Ez dute elikadura arazo larririk, baina dirurik ere ez. Elektraindarra duela 10 urte sartu zuten. Gaztarora iristean ez dute irtenbiderik, han egoten dira gazte sasoikoak eskuak gurutzatuta. Lehen kafea sikiera saltzen zuten baina orain kiloa peso bat (7 xentimo euro) ordaintzen diete soilik. Etorkizun gabezia hau alkoholetan itotzen dute batzuek. Beste batzuk ikasketetan gogor saiatu eta unibertsitatea dute helburu. Baina azken unean, merituk meritu, ez dute dirurik sarrera ordaintzeko.

## • Indigenak zapalduta daude.

500 urte zapalduta. Espainolak iritsi ziren eta badakizue zer gertatu zen, 50 urtetan han zegoen bizimodua suntsitu zuten. Ez ahaztu euskaldun batzuk ere tartean zirela historiako genozidiorik handienean. Mendaroarren bat ere bai.

«Lurak ematen die guk sekula izan ez dugun askatasun bat»

## • Mezu bat zabaltzeko eskatu dizuete, ezta?

Boterea tarteko den konfliktu bat dagoenean (lehen urrea zena orain uranioa da, egurraren industria edo turismoa...) beraien eskubideak zeharo ahazten dituzte. Hala ere, beti eusten diote euren lurrari euren biziaz. Erresistentziaren eredu dira. Hauteskundeetan ez dute ahotsik, abstenitu egiten dira, ez diote botorik ematen "suge mingainaz" mintzo diren hautagaiei. Politikoki eragiteko beste antolatutako direnean segituan moztu dituzte buruzagi indioen lepoak. Baina lehengo lepotik daramate hauek burua



500 urteko erresistentzia eta gero. Itxaroten ikasi dute, lasaitasuna darie euren aurpegiei, eta euren unea laster etorriko da. Eta orduan, duda gabe, aprobetxatuko egingo dute

«Ez dute elikadura arazo larririk, baina dirurik ere ez»

## • Zertan dira gauzak une honetan?

Gauzak mugitzen hasi dira Lacandona oihaneko zapatisten Caracoletako (eurek gobernu onerako batzordeak bezala izendatzen dituzte) herrietako kiribilak Mexiko osora hedatu nahi baititu bere besoak. Estatu guztietako indioak batzen badira Lacandonako VI. Deklarazioan Marcos subcomandanteak (benetako komandantea herria delako) egindako deiairen altzoan, itzulezina izan daiteke indigenen iraultza. Politikarien hitzen zaratatik aldentuz, 2006an datozen hauteskundeetara trufa eginez, "la otra campaña" izendatu dute batasun prozesu hau.

## • Pertsonalki, zer ikasi duzue?

Gure errealitatea ezagutzeko hango bizipenak argigarriak ditugu. Hemen mundua razionalizatzeko joera dugu, sailkatzeko, dena izendatuz, erreka eta mendi bakoitza GPSak markatzen du. Han mendi sakratuenei ere ez diete izenik jartzen. Bestalde, hemen libreak garestuak dira, gure bizitzek bide jakin bat jarraitzen dute. Han lotuak daude bai, baina euren aintzinako lurrari, eta lurak berak ematen die guk sekula izan ez dugun askatasun bat. Horregatik, orain, gustorago gaude aitxixxa eta amamakin. Orain gehiago baloratzen ditugu, antzera bizi zirela ohartu baikara. Halere, oraindik ezin dugu kalkulatu ere egin hangoak gudan izan duen eragina.

# GAZTIA NAIZ

## Lo tsaGABE

**Maialen Arnedo** 16 urte



**Eduki al duzu opor osteko depresiorik?**  
Bai, asko kostatu zait oporretatik bueltatzea.

**Gogoz hasi al duzu kurtso berria?**  
Bai. Kurtso berria, jende berria... desberdina izango da.

**Zer pasatzen zaizu burutik iratzargailuak jotzen duenean?**  
Bost minutu gehiago! Izugarri kostatzen zait jaikitzea.

**Zerekin egiten duzu amets esna zaudenean?**  
Australiara egingo nuke bidaia bat lagunekin.

**Nork irabaziko du "Operacion Triunfo"?**  
Gutxi jarraitu dut, Sergiok irabazi dezakeela uste dut.

**Gustatuko al litzazuke famatua izatea?**  
Ez! Zarata handiegirik egin gabe bizitzea gustatzen zait.

**Aberatsa bazina zer egingo zenuke?**  
Ondo bizi, lasai, iratzargailu gabe eta ingurukoei lagunduz.

**Edalontzia, erdi hutsik ala erdi beteta?**  
Erabat hutsik, oso pesimista naiz, beti txarrena pentsatzen dut.

**Parrandak alkoholik gabe?**  
Posible da, baina hori ez da parranda!

**Zerk lotsatzen zaitu?**  
Jende aurrean gaizki gelditzeak, erridikuloa egitea.

**Ikusi duzun azken pelikula?**  
"Bailame el agua". Gogorra, baina oso polita.

**Lo hartu aurretik egiten duzun azken gauza?**  
Ilea orrazten dut goizean korapilo gutxiagorekin esnatzeko.

**Ispilura begiratzean zer ikusten duzu?**  
Ni neu naizen modukoa.

**Ezkondu ala elkarrekin bizi?**  
Elkarrekin bizi.

**Etorkizunerako planik?**  
Zoriontsu izatea.

# BARREN

## jakiteko...

### GOMENDATZEN DIZUT... LEHIAKETAK EPEA LUZATU DU

Elgoibarko Gazte Informazio Bulegoak antolatutako "Gomendatzen dizut..." lehiaketak epea luzatu du. Beraz, urriaren 26ra arte zuen gomendioak bidalitzeko aukera duzue. Gomendatuko al dizkiguzu zure oporrak? Kontaiguzu zein den zure herri, hondartza, mendi, edo txokorik kuttunena eta sari bat irabazteko aukera izango duzu. Zure gomendioak Gazte Bulegora eraman edo [elg.gzerbitzua@terra.es](mailto:elg.gzerbitzua@terra.es) helbidera bidali ditzakezu. Lehiaketaren hel-

burua udako oporren inguruko gomendioak elkartrukatzea da. Parte hartu nahi dutenek bizi izan duten oporren inguruko gomendioak bidali behar dituzte: herri bat, txokoren bat, hondartza, aterpetxe, jatetxe, museo edo dena delako lekuren baten berri emanaz. Testua edo argazkia bidali dezakete. Sariak: 17 urtera artekoentzat MP3 sarrera duen disc-man bat eta 18 urtetik gorakoentzat 2 lagunentzako aste-burua aterpetxe batean.



### GAZTEENTZAKO IKASTAROAK

Donostiako Kontadoreseko eta Martuteneko bi gaztelekuek gazteentzako ikastaroak antolatzen dituzte 16tik 30 urtera bitartekoentzat uritik abendura. Ikastaroak honako hauek dira: antzerkia, gidioak, beira-alezko lanak, sukaldaritza, argazkilaritza, makilajea, funky-a, eritimoa eta perkusioa, flamenkoa, Didgeridoo eta kapoeira. Informazio gehiago 943 390122 telefonon.

### UNIBERTSITATEZ KANPOKO MAILETAN ESKOLATZEKO BEKAK

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak antolatuta, ikasleak Unibertsitatez kanpoko mailetan eskolatzeko ikasketa beka eskainiko dira. Diru laguntza hauek jaso ahal izateko ondorengo baldintzak bete beharko ditu eskatzaileak: Erdi-mailako zein Goi-mailako heziketa-zikloetan, Haur Hezkuntzan (2. zikloa), Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Hezkuntza Berezian edota Batxilergoko modalitate desberdinetako lehen eta bigarren kurtsoetan ikasten ariteza Euskal Autonomia Erkidegoan. Dirulaguntzak ondorengoak izango dira: Irakaskuntzarako, joan-etorrietarako edo egoitzarako laguntzak, ikasmaterialerako, jangelarako edota laguntza osagarria. Eskabideak aurkezteko epea datorren urriaren 17an bukatuko da. Eskabideak ikasketak egiten diren ikastetxean aurkeztu beharko dira. Informazio gehiago eskuratzeko: 945 017200 (Gasteiz), 94 4031000 (Bilbao) 943 022850 (Donostia).

**gazte informazioa**  
Kultur etxean. Bigarren solairuan  
Tel.: 943 74 14 61

Lan dosierrak, beka, lehiaketak... guzti honen inguruko informazioa

**Gazte informazioko panelean aurki dezakezu!**



## MILAGROS BERGANZO

ALZHEIMER GAIXO BATEN EMAZTEA

# «Zaintzaileok askotan gaixoak berak baino laguntza handiagoa behar izaten dugu»



*Irailaren 21ean Alzheimer gaixotasunaren Mundu Mailako Eguna izan zenez, gaixotasun hau gertutik bizi duen emakume bat ekarri dugu gaurkoan gure artera. Milagros Berganzoren senarrari duela 10 urte diagnostikatu zioten alzheimerra. Milagrosek bere eguneroko bizipenak kontatu dizkigu.*

### 👉 Zenbat urte daramatza senarrak alzheimer gaixotasunarekin?

10 urte inguru. Aste honetan 84 urte egin ditu, beraz, gaixotasuna diagnostikatu ziotenean 74 urte izango zituen. Gaixo batzuei berehala garatzen zaie alzheimerra baina nire senarrari nahiko poliki garatu zaio.

### 👉 Etxean konturatu al zineten gaixotasuna bazetorrela?

Bai. Nire semea erizaina da, eta berehala konturatu zen aitari zetorkionaz. Nik ez nuen sinetsi nahi, baina poliki-poliki gaixotasuna garatuz joan zen.

### 👉 Zeintzuk izan ziren hasierako sintomak?

Giltzak non utzi zituen ahazten zitzaion askotan. Bera beti oso txukuna izan da eta gauza guztiak bere lekuan uzteko ohitura zeukan. Gaixotasuna etorri zitzaionean ez zen gogoratzen gauzak non uzten zituen. Gero diruarekin obsesionatu zen: beti diru bila zebilen, ogia eta egunkaria erostera joaten zenean bueltak gaizki ematen zizkiotela esaten zidan, edo kartera lapurtu ziotela esanez etortzen zen etxera... askotan bankura joaten zen diru eske, eta banketxeko langile bati txanpon batzuk bada ere emateko esan nion. Gero diru faltua sartzen genion karteran bera lasai egoteko. Bestalde, gisatzen ahaztu zitzaion. Errioxara joan ginen batean ez zuen

marxa aldatzen. Autoa kentzea izugarri kostatu zitzaigun.

### 👉 Nola eboluzionatu zuen gaixotasunak?

Hasierako despisteak larriagotu egin ziren. Duxara joaten zenean ez zen behar bezala garbitzen, edo etxeko erropak kendu eta kalera joateko berriz berdinak jantzen zituen...

«Ahal dudan maitasun guztia ematen diot senarrari»

### 👉 Zein da momentu honetan zure senarraren egoera?

Ez du hitz egiten, eta ezin da ibili. Mukiak kentzeko ere ez da gai. Jaten ere ahaztu zaio eta ez badiozu ematen ez litzateke jateaz gogoratu ere egingo. Hala ere oraindik ezagutzen gaituela uste dut, batzutan nire izena esaten du behintzat. Nik ahal dudan maitasun guztia ematen diot. Ume handi bat bezalakoa da.

### 👉 Nolakoa da bizimodua alzheimer gaixo baten ondoan?

Oso gogorra. Hasieran laguntza psikologikoa behar izan nuen, eta negar asko egin nuen. Zaintzaileok laguntza gehiago behar izaten dugu askotan, gaixoa ez da ezertaz konturatzen, baina gu bai. Azkenean badirudi ohitu egiten zarela, eta aurrera egiteko indarra ateratzen da. Ez dago beste erremediorik.

### 👉 Nolakoa da zure bizimoduko egun arrunt bat?

Goizean goiz jaiki eta gosaria ematen diot. Gero laguntzaile bat etortzen zait etxera eta duxatu eta jantzi egiten dugu. Ondoren Eguneko Zentrora eramaten dut eta han egoten da arratsaldera arte. Gero bueltatxo bat eman edo zuzenean etxera joaten gara. Independentzia guztia galtzen da.

### 👉 Noiz konturatu zinen senarra zaintzeko laguntza behar zenuela?

Duela bost urte egin zuen gaixotasunak txarrera eta nik bakarrik ezin nuen zaindu. Eguneko Zentroak izugarri laguntzen dit, han oso ondo zaintzen dute eta niri eguna libre gelditzen zait, bestela ezingo nuke ezer egin. Familiakoek ere laguntzen didate. Hiru seme-alaba ditugu eta txandaka etortzen dira aitarekin egotera. Laguntza profesionala ezinbestekoa da.

## ELGOIBARKO EAJREN MENDEURRENA

### “iNunca Mas!: gerra irudiak 1936-1939” erakusketa urriaren 15era arte

**E**lgoibarko EAJ alderdiak 100 urte bete ditu aurten, 1905. urteko urriaren 1ean ireki baitzituen ateak Elgoibarko lehen batzokiak. Mendurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu Elgoibarko Uri Buru Batzarrak. Hasteko, urriaren 1ean, zapatu honetan, Gerra Zibilaren inguruko “iNunca Mas!: gerra irudiak 1936-1939” erakusketa jarriko da ikusgai Kultur Etxean. XX. mendean Euskal Herrian jasotako gertakari garrantzitsuenetakoa izan zelako aukeratu dutela Gerra Zibila protagonista den erakusketa adierazi digu Alfredo Etxeberriak, Elgoibarko EAJko presidentek. “Mendea erditik apurtu zuen Gerra Zibilak eta oraindik ere gertakari latz haren ondorioak ordaintzen dihardugu”. Erakusketa 12:30ean inauguratuko da eta Xabier Arzalluzen hitzurre baten bitartez inauguratzea espero dutela adierazi digu Etxeberriak. Aurrez trikitixa eta txalapaparta doinuek girotuko dute ekitaldia eta ohorezko aurrekua dantzatuko da. Urriaren 5ean, eguaztenean, erakusketaren gaiarekin lotutako hitzaldia eskainiko du Juanxu Agirrek Kultur Etxean (19:30).



#### Epaitzen ez duen erakusketa

Euskal Herriko argazkiekin osatutako erakusketa honetako irudiek ezin hobeto erakusten dute gure herriaren historiako garairik tragikoenetako bat. Orduko gertakarietan harrapatu geratu ziren gizon eta emakumeek sentitu zutenaren gaineko erakusgarri hurbil eta bizia da. Ez du epaitzeko asmorik; alde batean zein bestean gertatu zena aurkeztu baino

ez du egiten. Argazkiak denetarikoak dira: gerrako irudiak, soldaduak, lubakiak, agintariak, atzeguardiako irudiak, biztanleria zibila, haur, zahar, emakume, e.a. Leyre Arrieta eta Miren Barandiaran historialariek Euskal Herriko eta Estatuako hainbat artxibo eta agiritegietan egindako bilketa lanaren emaitza da erakusketa. Urriaren 15era arte izango da ikusgai.

#### “Amama Pantxikaren altxor ezkutua” antzezlanaren urriaren 7an



Kiribilka egitasmoaren barruan eta aurtengo saioren agur modura, 2-6 urteko haurrei eta bere gurasoei zuzenduta “Amama Pantxikaren altxor ezkutua” ikuskizuna izango da Herriko Antzokian, urriaren 7an 17:30ean. Doan izango da. Antzezlan musikal honen bidez haurren garapenerako baliagarriak izan daitezkeen kontzeptu batzuk bultzatu nahi ditu Zenbat Gara antzerki taldeak. “Mende honetan, haurrek jasotzen dituzten irakaspen eta balore asko kontsumismo eta norberekerian oinarriturik daude, zoritxarrez. Gure nahia, lagunkidetasuna, nagusiekiko errespetua, batez ere aitita-amamekiko, eta zentzu materialista hutsa ez duten ondasunen balioa aldarikatzea da” azaldu digute.

#### Haur kanta eta jolasen ikastaroa gurasoentzat

Gurasoei zuzenduriko haur kanta eta jolasen ikastaroa antolatu du Elgoibarko Izarrak Udalarekin elkarlanean. 0-6 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoei eta guraso izateko zain dauden bikoteei zuzendutako saioko urrian hasiko dira, 8 orduko iraupena izango dute eta zapatu goizetan edo astean zehar egiteko aukera izango da. Matrikula 20 eurokoa izango da, CDa eta liburuxka bane. Izen-ematea urriaren 7a baino lehen egin beharko da Elgoibarko Izarrak Ubitarten duen lokalera joanda, edo 943 74 16 26 (Nerea) zenbakira deituz. Bestalde, gurasoak ikastaroan dauden bitartean, haurrak Atxutxiamaikako begiraleekin lagatzeko aukera izango da.

**J. A. ARRILLAGA** E.H.KO ARRAZA LIBREKO ARTZAIN TXAPELKETAKO IRABAZLEA

## «Artzain txakur txapelketa etxetik 500 metrora jokatzea ez zen abantaila izan»



*Jose Antonio Arrillaga (55 urte) eibartarra da jaiotzaz, baina Aiastiako (San Migel) Belartondo baserrian bizi da azken 15 urteetan. Boarder Collie arrazako "Lagun" txakurraren laguntzarekin Euskal Herriko Arraza Libreko Artzain Txakur Txapelketa irabazi zuen Aiastiako jaietan.*

### 🐾 Uste zenuen moduan joan al zen txapelketa?

Uste baino hobeto. Konpetentzia handia zenez beldurra ere halakoa nuen. Txapelketa etxetik 500 metro eskasera jokatzea ez zen abantaila izan, alderantziz, presioa nabaritu nuen denek nik irabazi behar nuela esaten baitzidaten. Txakurrek ere segituan igartzen dute artzaina urduri edo pozik dagoen. 31 urte daramatzat txapelketetan parte hartzen, hutsik egin gabe, eta oraindik urduri jartzen naiz.

### 🐾 Halere, txapela jantzi zenuen?

Bai. Bi txakurrekin parte hartu nuen: "Lagun"ekin Gipuzkoako Txapelketan irabazle atera nuelako eta "Txuri"rekin txapeldunorde. Lehenarekin 1. postua eta "Txuri"rekin 4. egin nuen. Bigarrenari puntu bakarreko aldea atera nion. Huskeria bat da hori, deskuido txiki bat. Finalera sailkatu ginen sei artzainok lortu genuen ardi guztiak etxolara sartzea eta ateratzea eta segituan, gainera.

### 🐾 Nolako txakurra da "Lagun"?

Border Collie arrazako txakur oso umila, lasaia eta esanekoa da. Adinik onenean dago, ia 3 urte baititu. 3-4 urtetik aurrera ondo ibili behar du txakurrak, bestela ez da sekula ibiliko. 8-9 urte dauzkaten arte erabili daitezke txapelketetan. Betiere tranpak egiten ikasi ez badute. Alegia, agindutakoa egin barik, bere kasara aritzen bada

jai dago! Txakurrari agindu bat emandakoan, banderen aurrean geratzeko adibidez, alperrikakoa dela jakin arren, esandakoa egin behar du. Osterantzean ez du balio, nahiz eta etxeko lanetan primeran moldatu oraindik.

### 🐾 Txapeldun geratzen zaren bigarren aldia izan da, ezta?

Halaxe da. 1999. urtean "Sara" izeneko txakurrekin jantzi nuen txapela Erron, Nafarroan. Oñatiko txapelketa ere 4 alditan irabazi dut, baina 1998an Gorbeako Artzain Txakur euskaldunak bakarrik onartuko zituztela erabaki zutenetik ez dut Oñatin parte hartu eta egungo antolatzaileak jarraitzen duten bitartean ez noa ni hara. Orain, Pirineoko artzain txakurra ere galerazi dutela jakin dut. Azkenean eurek bakarrik geratu behar dute. Lau txakur apartatzen dituzte eta kitto! Gero nazioarteko txapelduna ateratzen dela bertatik esaten dute, nazioartekoa?

### 🐾 Artzainok banatuta zaudete.

Bai, bi bando kontrajarritan banatzea bakarrik lortu du eztabaidak. Politena horixe zen, lehen ibiltzen ginen moduan, danok elkarrekin jarraitzea. Euskal artzain txakurra mantendu behar dela aldarrikatzen dute beraiak, eta ados nago, baina arraza horretako txakur onena saritu beharko lukete eta gainontzekoei ere parte hartzen laga.

«Boarder Collie arrazako Txakur umil eta esanekoa da 'Lagun'»



## MORKAIKOREN IRTEERAK

### Pirineotako paisaiak eta ekaitza ezagutu zituzten 36 lagunek



**L**escun, Linza eta Ozako inguruak ezagutu zituzten 36 lagunek Morkaiko Mendizale Elkartek antolatu zuen azken irteeran. Lehen egunean, eguraldia lagun, Petretxema (2.366 m.) mendia tontorrera igotzeko aukera izan zutela adierazi digute, baina bigarren egunean, Linza eta Ozako basoa batzen dituen bidea egiten ari zirela, Peña Forca (2.387 m.) mendia igotzeko ahaleginean, ekaitzak harrapatu zituela gaineratu digute. Kaskabarra eta tximistak nagusi ziren Pirineotako ekaitz bat barru-barrutik bizitzeko aukera izan zutela argitu digute. Hezurretaraino bustita, baina zorionez denak salbu itzuli ziren.

#### Morkaikorekin Kilometroetara oinez

Kilometroak urriaren 2an Arrasaten ospatuko direla-eta, bertara oinez joateko irteera antolatu du Morkaikok. Joan nahi duenak goizeko 7:45ean Plaza Handian agertzea besterik ez du. Ez dago izenik eman beharrik. Azitaineraino autobusez joango dira eta handik Topinburu aldera abiatuko dira. Gero, Azurtza ondotik Elgetaraino iristea da asmoa. Ondoren, Intxorta albotik Kanpazarrera joateko. Kanpazarretik Arrasatera jaitziko dira. Bost ordu eta erdian egitea espero dute. Itzulera norbere kontura egin beharko da. Garraio publikoa erabili daiteke edota Elgoibarko Izarrak antolatzen dituen autobusetan izena eman.

### 377 haurrek parte hartuko dute igeriketa kanpainan

Elgoibarko Udal Kirol Patronatua hasi da igerian ikasteko kanpaina berriarekin. Bertan, Elgoibarko eta Mendaroko ikastetxeetako 6 eta 9 urte bitarteko 377 haurrek parte hartuko dute. Besteak beste, igerian egiteko oinarrikoak diren ezagutzak irakatsiko zaizkie. Helburu hori betearazteko talde bakoitzak 20 orduko saioak jasoko ditu. Kanpaina dohainekoa izango da, Udal Kirol Patronatuak ordaintzen baitutu gastu guztiak, 7.000 euro inguru. Gipuzkoako Foru Aldundiak, berriz, 1.000 euroko diru-laguntza emango du. Horretaz gain, haur bakoitzaren aseguruia ere ordainduko du. Kanpainari 2006ko ekainaren 19an emango zaio amaiera.



### Behobia Donostia lasterketa prestatzeko saio praktikoak

Debarroko Euskara eta Kirol Zerbitzuek Behobia-Donostia herri laisterketaren atarian hitzaldi edo saio-praktikoak antolatu ditu. Josean Lekue (kirol sendagilea eta SHEEko irakaslea eta HTZko kirol sendagilea) izango da Behobia prestatzeko saio praktikoak emango dituena. Besteak beste, osasun oinarriak (bihotz zirkulazio sistema, aparato lokomotorea, helburuen egokipena osasun egoerara, e.a.) eta entrenamenduaren oinarriak (helburuak finkatzea, erritmoak egokitzeko testak, errekupeazioa, e.a.) azalduko ditu. Urriaren 7an, datorren barixakuan, izango da Eibarko Ipurua Kiroldegian, 19:00etatik 21:00etara. Saioa euskaraz izango da eta 5 euro sartu beharko dira honako kontuan: 3035-0023-99-0230065572. Plazak mugatuak dira. Informazio gehiago jaso nahi izanez gero eta izena emateko Eibarko Ipurua kiroldegira jo eta Alejandro Altunagatik galdetu.

### Txirinduak konpontzeko tailer arrakastatsua



Debegesa eta Udalaren eskutik Mugikortasun Astea ospatu zen gure herrian joan zen astean. Kotxerik Gabeko Egunaz gain, beste ekintza batzuk ere antolatu ziren, txirinduak konpontzeko tailerra kasu. Mordoxka bat izan ziren bizikleta hartuta Plaza Handira agertu ziren gaztetxoak. Batzuk matxuraren bat edo beste konpontzera eta beste batzuk gurpil zulatu bat nola konpondu ikastera. Argazkian ikus daitekeen moduan irakasleek lana gainezka izan zuten.

## OHARRA

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.



- Mutrikuko enpresak **kamioi gidaria** behar du. **Erref. 162005009700**
- Gipuzkoako enpresak **erizaina** behar du. **Erref. 162005009859**
- Arrasateko enpresak **medikua** behar du. **Erref. 162005009226**
- Arrasateko enpresak **medikua** behar du. **Erref. 162005009224**
- Zestoako enpresak **aisialdirako monitorea** behar du. **Erref. 162005009761**
- Bergarako enpresak **arte dramatikoa** behar du. **Erref. 162005009492**
- Bergarako enpresak **mekanikoa** behar du. **Erref. 162005009462**
- Arrasateko enpresak **gizarte eta kultur sustatzailea** behar du. **Erref. 162005009736**
- Elgoibarko tabernetan gauzez edari alkoholdunen promozioa egiteko **azafata** behar da. **Erref. 162005009409**
- Zumaiako enpresak **garbitzailea** behar du. **Erref. 162005009504**
- Zarauzko enpresak **eskola jantoki begiralea** behar du. **Erref. 162005009523**
- Gipuzkoako enpresak **elekttrizistak** behar ditu. **Erref. 162005008447**

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

## [ LANA ]

### ESKAERA

- † Neska gazte euskalduna aste barruan arratsaldez umeak zaintzeko prest. ☎ **628 59 83 59**
- † Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest: elkarteak, portalak, etxeak... ☎ **639 88 20 04**
- † Emakumea nagusiak zaintzeko prest ospitalean edo etxean. ☎ **943 03 36 05**
- † Emakumea orduka garbiketa lanak egin eta plantatzeko prest. ☎ **943 03 36 05**
- † Neska haurrak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **680 526 614**
- † Neska nagusiak edo haurrak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **686 578 228**
- † Neska gaztea orduka lan egiteko prest. ☎ **638 716 987**
- † Neska gaztea umeak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **649 77 80 11**
- † Mutil gaztea baserrian, kamarero, nagusiak zaindu... lanerako prest. ☎ **680 91 88 93**
- † Neska pertsona nagusiak zaintzeko prest. Interna. ☎ **943 53 15 53**
- † Emakumea etxeko lanak egiteko prest. ☎ **943 74 22 01 (Araceli)**
- † Mutila edozein lanetarako prest. ☎ **676 623 843**
- † Neska gaztea lanerako prest: umeak edo adinekoak zaindu, garbiketa lanak... ☎ **630361395/943172896**
- † Mutil gaztea lanerako prest: igeltseroa eta enfotratzailea. ☎ **630361395/943172896**
- † Bikotea enpresa edo jangela garbiketarako prest. Esperientzia industria garbiketara. ☎ **669 22 35 27**

### ESKAINITZA

- † Astegun eta asteburuetan taberman lan egiteko pertsona bat behar da. ☎ **943 742897**
- † Psikologoa behar da. ☎ **676 61 70 55**
- † Neska edo andra bat behar da 4 urteko umea zaintzeko goizez eta arratsaldez. ☎ **619 643 532**
- † Ikastolako jantokian haurrak zaintzeko pertsona behar da. Euskara ondo dakiena eta puerikultura edo begirale titulua duena. Interesatuek irailaren 27a baino lehen deitu ikastolara. ☎ **943 74 44 41**
- † Kamareroa behar da. Neska zein mutila. Autoa beharrezkoa. ☎ **943 20 27 27**
- † Ileapaintzailea behar da arratsaldez lan egiteko. ☎ **943 74 43 88**
- † Kamareroa behar da. ☎ **615723480**
- † Kamareroa behar da. ☎ **943741600**
- † Pertsona bat behar da asteburuetan sukaldarako. ☎ **615723480**
- † Kamareroa behar da barran lan egiteko. ☎ **652778260/652778210**

- † Elgoibarko tabernarako sukalde laguntzailea behar da asteburuetarako. ☎ **943 74 10 12**

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

- † 90m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai Erretxindin. Berritua. Oso interesgarria. ☎ **651 700 752**
- † Pisua salgai Pedro Migel Urruzuno 8an. Igogailua eta berogailuarekin. ☎ **943 53 10 03**

### ALOKAIRUA

- † Pisua alokatzen dut Gasteizen. Erdigunean. 2 logela. ☎ **943 74 18 98**
- † Bi logela alokatzen dira. Arropa garbiketa barne. Herri erdian. ☎ **620 740 898**
- † Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **675 467 874**
- † Logela alokatuko nioke emakume bati. Pertsona ona izan dadila. ☎ **943 74 0890 (Lola)**
- † Atiko duplex-a alokairuan edo salgai Marbellan. Igerilekuarekin, hondartzatik gertu. ☎ **943 74 06 28/699179872**
- † Pertsona bat behar da pisua osatzeko. ☎ **610 45 85 52**
- † Apartamentua alokatzen da Benidorm-en. ☎ **943 74 06 28 (gauzez)**
- † Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **626 91 49 04 (Rosa)**
- † Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibar edo inguruetan. ☎ **670 814 035**
- † Etxea alokatzen da Mendaron. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. ☎ **660 042 159**

## [ GARAJEAK ]

- † Garaje itxia salgai Madalan. 28 m<sup>2</sup> ☎ **646 50 28 66**
- † Madalako etxeetan garaje itxia alokatzen da. ☎ **620 13 59 58**
- † Garaje itxia salgai Pista Beltzean. ☎ **943 74 27 78**
- † Garajea alokatzen da Pista Beltzean. ☎ **943 74 33 52**
- † Leku Ederren 4. solairuan garaje irekia salgai. 21.000 euro. ☎ **660 042 159**
- † Garaje marraduna alokatzen da Santa Ana kalean. ☎ **630 21 12 02**

## [ PARTIKULARRAK ]

- † Irakasle natiboak aleman klaseak emango lituzke. ☎ **650 729 683**
- † LH eta 2. ESO bitarteko ikasleei klase partikularrak ematen dizkiet. ☎ **652 71 59 11**

## [ SALEROSKETAK ]

- † Motorra salgai. Riegu 49cc. Egoera onean. ☎ **662 130 495**
- † Umeentzako kotxesilla bikoitza salgai. Urdin iluna, Graco markakoa. 70 euro. ☎ **943 74 43 38**
- † Peugeot 206 autoa salgai. 1400cc. 75cv. gasolina. 46.000km. ITV 2007. SS-BJ. 5.500 euro. ☎ **943 74 43 10**
- † Martxan dagoen "Todo a 100" negozioa salgai jubilatzaioagatik. ☎ **943 74 35 36/675 71 77 04**
- † Ford Fiesta autoa salgai. Egoera onean. SS-2107-AM. ☎ **652 725 839**
- † 4 gurpileko prenatal kotxesilla, bidaizatzeko maxi-cosi (0-9kg.), eta neskaentzako moises-a salgai. Berriak. Eunitarako burbuila opari. 210 euro. ☎ **667 36 82 34**
- † Play Station 2 salgai. Jokuekin. ☎ **685 75 93 15**
- † Bikientzako kotxesilla salgai, Inglesina markakoa. (Aulkia, grupo 0, zakuak, burbuilak...) ☎ **636129543**

## [ BESTERIK ]

- † Bernardo Ezenarro kale inguruan pulsera bat galdu dut. ☎ **667 974 283**
- † Elgoibarko Caritas-ek mantak eta izarak behar ditu. Premia handia dago. ☎ **943 74 15 09**
- † Iraila hasieran artilezko zapatilatxoak galdu nuen irlandes aurrean, txuri-urdira. ☎ **943 03 04 34**
- † San Rokeko zubian haur baten praka eta kamiseta aurkitu ditut poltsa baten barruan. Udaltzaingoa daude.


## [ZORIONAK]



† Zorionak **Xabier** astearte-an 11 urte egingo dituzulako. Etxekoan partez.




† Zorionak **Markel** urriaren 3an 3 urte egingo dituzulako. Etxekoan eta bereziki Haizearen partez muxu bat.



† Zorionak **Ander** gaur 4 urte egin dituzulako. Familiakoan eta bereziki, Nerea eta Jabiren partez. Muxu bat.



† Zorionak **Anel** "Kantatzen duen herria ez da inoiz hilko". Jarraitu orain bezalako alai. Familiakoan partez.



† Zorionak **Ioritz** astelehenean zure eguna delako. Guraso eta aitona-amonen partez.



† Zorionak **Leire** zure lehenengo urtebetetzean. Etxeko guztien partez muxu handi bat.



† Zorionak **Adrian** igandean 11 urte beteko dituzulako. Familiako guztien partez muxu handi bat.



† Zorionak **Unai** arreba Lorea, Carlos eta Zoila eta amama Klaritaren partez.



† 23 urte pasa dira! zorionak eta muxu handi bat Ander eta Loinazen partez.



† Zorionak **Julen eta Maider!** Etxeko guztien partez muxu handi bat.



† Zorionak **Maria eta Paula** zuen 4. eta 6. urtebetetzean. Familiako guztien partez.



† Azkenean heldu da zuen eguna! oso ondo pasa eta zorionak etxeko guztien partez.

† Zorionak **Inigo eta Aita-txol** Egun on bat pasa eta muxu handi bat bereziki, Mikel eta Oihanaren partez.



### IKASTAROAK

#### "HEGORANTZ HURBILDUZ" IKASTAROA

Garapenerako lankidetzari buruzko "Hegorantz Hurbilduz" hastapen-ikastaroa emango da urtik abendura. Larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etatik 19:30etara eta igandetan 10:00etatik 14:00etara. Luzapena: 72 ordu. Balioa: 20 euro. Epea: urriak 5. Informazioa: 943 275173.

### LEHIAKETAK

#### AIRE ZABALEKO III. PINTURA LEHIAKETA LEGAZPIN

Legazpiko Arkatza Elkartek antolatuta. Edukia: Bi gai-mota egongo dira, A Librea eta B Paisaia industrial, teknika librea izanik. Saria: 450,00 euro gai bakoitzeko. Epea: irailaren 24a. Informazioa: Legazpiko Kultur Etxea, 943730401

### BEKAK

#### HERRI ADMINISTRAZIOAREKIN ZERIKUSIA DUTEN GAIEI BURUZ IKERTZEKO 4 DIRULAGUNTZA

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak antolatuta. Baldintzak: Administrazio-egoitza EAEn izatea 2003ko urtarrilaren 1az geroztik. Goi-mailako unibertsitate-ituluduna. Dirulaguntzak: 4.000 euro. Epea: urriak 3, Ikerlanak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen aurkeztutak eduki behar dira azaroaren 30a baino lehen. Informazioa: 945 017600

### LANA

#### APAREJADOREA AZPETIKO UDALERAKO

Baldintzak: Aparejadore edo Arkitekto Tekniko titulua, Euskarako 3. hizkuntza-eskakizuna eta "B" motako gida baimena. Epea: urriak 14. Informazioa: 943 157200.

#### ADMINISTRARI LAGUNTZAILE BAT BERRIOBETIKO UDALERAKO

Baldintzak: Eskola Graduatua, LH I edo baliokidea. Epea: urriak 13. Informazioa: 948 303129 (Nafarroa).

### OSASUN LAGUNTZAILE TEKNIKOAK

Errenteriako Udalak OLTen itxaronzerrenda zabalduko du Zaharren Egoitza eta Udal Patronatuko langileen aldi baterako premiei erantzuteko. Baldintzak: Erizaintzako Diplomatura eta Euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna. Epea: urriaren 3tik 28ra bitartean. Informazioa: 943 526000

### INFORMATIKAKO 2 TEKNIKARI LAGUNTZAILE

Eibarko Udalean Informatikako 2 Teknikari Laguntzaile kontratatzeko oposizio-lehiaketa. Baldintzak: LH II edo maila baliokidea eta 2. hizkuntza-eskakizuna. Epea: urriak 10. Informazioa: 943 70 84 20

### ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.  
e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es  
☎ 943 741 461



Asteartetik ostiralera  
16:00-19:00





## [ OKINDEGIA ]



2 igandea FOTERO



## [ FARMAZIAK ]

	<b>EGUNEZ</b>	<b>GAUEZ</b>	<b>KANPOKO FARMAZIAK</b>
30	Fernandez	Fernandez	<b>IBÁÑEZ</b>
1	Yudego	Yudego	Rekalde, 1 Soraluze.
2	<b>Yudego</b>	<b>Yudego</b>	Tel: 943 75 16 38
3	Zabaleta	Zabaleta	
4	Etxeberria	Etxeberria	<b>FERNANDEZ</b>
	(Errosario)		Herriko enparantza 4, Garagarza.
5	Ibañez	Ibañez	Tel: 943 75 61 42
6	Bidasolo	Bidasolo	
7	Etxeberria	Etxeberria	<b>ZABALETA</b>
	(Santa Ana)		Kalebarren, 9 Soraluze.
			Tel: 943 75 13 84



## [ TELEFONOAK ]

<b>OSASUNA</b>		<b>BESTELAKOAK</b>	
Anbulatorioa	943 03 26 10	BARREN astekaria	943 74 41 12
Larrialdiak	943 46 11 11	Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Planning-a	943 74 29 50	Kiroldegia	943 74 44 15
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85	Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22	Liburutegia	943 74 35 25
Gurutze Gorria	943 74 38 64	Musika Eskola	943 74 21 45
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Mintxeta	943 74 43 15
Odol Emaileak	943 74 39 36	Parrokia	943 74 08 42
		Postetxea	943 74 15 47
		Gazte Informazioa	943 74 14 61
		KZ gunea	943 74 88 28
<b>UDALA</b>		<b>ADINEKOEN ETXEAK</b>	
Euskara Zerbitzua	943 74 43 66	San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58	Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Hirigintza	943 74 43 84	Eguneko Zentroa	943 74 45 65
Epaitegia	943 74 16 30		
Hazierna	943 74 44 14	<b>IKASTETXEAK</b>	
Mendaroko Udala	943 03 32 82	Haur Eskola	943 74 21 41
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08	HII (EPA)	943 74 08 80
Udaltexea	943 74 10 50	Herri Eskola	943 74 08 79
Udaltzaingoa	943 74 13 94	I.M.H.	943 74 41 32
Debemen	943 74 40 67	Institutua • Arreiturre	943 74 80 19
		•Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
<b>GARRAIOAK</b>		Ikastola	943 74 44 41
Eusko Trenbideak	943 74 04 42	Pilar Ikastetxea	943 74 13 31
PESA (Eibar)	902 10 12 10		
Taxi geltokia	943 74 08 98		
Bizkaibus	902 222 265		



## [ AUTOBUSAK ]

### ELGOIBAR - DONOSTIA

**Astegunak:** 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40  
**Larunbatak:** 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00  
**Igandek eta jaiegunak:** 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40  
**Pesa:** 902 10 12 10

### DONOSTIA - ELGOIBAR

**Astegunak:** 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.  
**Larunbatak:** 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45  
**Igandek eta jaiegunak:** 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.  
**PESA:** 902 10 12 10

### ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

**Astegunak:** 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.  
**Asteburua eta jaiegunak:** 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.  
**EUSKOTREN:** 943 74 04 42

### MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

**Astegunak:** 6:55ean hasita, ordi erdira. Azkena 21:55.  
**Asteburua eta jaiegunak:** 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.  
**EUSKOTREN:** 943 74 04 42

### SIGMA - ARRIAGA

**Astegunak:** 9:25, 11:10, 12:10, 13:10, 18:20, 19:10  
**Larunbat lanegunetan:** 8:00, 11:20, 12:20, 13:20  
**EUSKOTREN:** 943 74 04 42

### ARRIAGA - SIGMA

**Astegunak:** 9:55, 11:40, 12:40, 18:10, 19:00  
**Larunbat lanegunetan:** 8:10, 11:10, 12:10, 13:10  
**EUSKOTREN:** 943 74 04 42

### LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK

**EUSKOTREN:** 943 74 04 42

### ELGOIBAR-DEBA

1:05, 2:35, 4:35, 6:05

### DEBA-ELGOIBAR

12:10, 1:55, 3:40, 5:25

### ELGOIBAR-EIBAR

12:25, 2:10, 3:55, 5:40

### EIBAR-ELGOIBAR

1:00, 2:30, 4:30, 6:00

## ERROSARIO KALEKO JAIAK

### Urriak 2 (domekia)

18:00 Errosarioa eta Jauna agerian jartzea Parrokian

### Urriak 5 (eguztena)

17:30 Txokolatada bikaina Baltasar elkartearen aurrean  
 18:00 Malabaristak

### Urriak 6 (eguna)

18:00 Sokamuturra  
 19:15 Kalejira Mausitxa eta Udaleko Buruhandiekien Ondoren, luntxa

### Urriak 7 (barixakua)

Errosarioko Ama Birjinaren Eguna  
 08:00 Klean hildakoen aldeko meza Santa Klaran  
 19:00 Klean hildakoen aldeko meza Parrokian  
 Berehala Errosarioko Ama Birjinari Otoitza eta Salbea  
 21:15 Errosario kalekoen afaria Kultur Etxeko sotoan (Gabi eta El Gautxo tabernek eskainia eta Gelatxok alaitua)

### Urriak 8 (zapatua)

11:30 Esku pilota partiduak Aranburu (Munduko trinkete txapeldun ohia) eta Sugasti iparraldekoek, Elgoibarko Lagunak taldekoen aurka.

# SINOPSISIAK

«La morada del miec



## [ 30 BARIXAKUA ]

**17:30 KIRIBILKA PROGRAMA**  
2-6 urte bitarteko haurrei eta gurasoei zuzendutako programa Plaza Handian (Euria egingo balu, bertan behera geratuko litzateke)  
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

## [ 1 ZAPATUA ]

**12:30 "INUNCA MASI: GERRA IRUDIAK" ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA**  
Kultur Etxeko erakusketa gelan  
Antolatzailea: Elgoibarko Eusko Alderdi Jeltzalea, bere mendeurrena ospatzeko ekintzen barruan  
Hitzaurrea: Xabier Arzalluz-ek

## [ 5 EGUAZTENA ]

**19:30 GERRA ZIBILAREN INGURUKO HITZALDIA**  
Hizlaria: Juantxu Agirre  
Kultur Etxeko hitzaldi gelan  
Antolatzailea: Elgoibarko EAJ, bere mendeurrena ospatzeko ekintzen barruan

## [ 7 BARIXAKUA ]

**17:00 DONOSTIAKO AQUARIUMERA GAUA PASATZERA JOATEKO IZEN EMATEA**  
Izen emateko azken eguna: urriak 7 (gaur), Elgoibarko Izarran.  
Iteera: Urriaren 14tik 15era.  
Prezioa: 20 euro  
(Kutxako honako zenbakiak: 2101 0036 65 0124148420)  
Antolatzailea: Atxutxiamaiika Aisialdi Taldea

**17:30 "AMAMA PANTXIKAREN ALT XOR EZKUTUA" IKUSKIZUNA**  
Taldea: Zenbat Gara antzerki taldea  
Herriko Antzokian  
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra (Kiribilka programaren barruan)

**22:00 BIDEO-FORUM-A**  
Filmea: "Normal"  
Hizlaria: Eskame Larrinaga  
Kultur Etxeko hitzaldi gelan  
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

## ZINE KARTELDEGIA

### ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«La Morada del miedo»  
1, zapatua: 19:30-22:15  
2, domekia: 19:30-22:15  
3, astelehena: 22:15  
«Una mujer difícil» (Zine Kluba)  
6, eguena: 22:15  
«Mr. and Mrs Smith»  
7, barixakua: 22:15

### EIBAR, UNZAGA

«Aupa Etxebeste!»  
30, barixakua: 19:30-22:15  
1, zapatua: 17:00-19:30-22:15  
2, domekia: 17:00-19:30-22:15  
3, astelehena: 19:30-22:15  
4, martitena: 19:30-22:15  
5, eguaztena: 19:30-22:15

### EIBAR, RIALTO

«Los secretos de los hermanos Grimm»  
30, barixakua: 19:30-22:15  
1, zapatua: 17:00-19:30-22:15  
2, domekia: 17:00-19:30-22:15  
3, astelehena: 19:30-22:15  
4, martitena: 19:30-22:15  
5, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENEK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

o»

## «Una Mujer difícil» (Z.K.)

Zuzendaria: Andrew Douglas  
Antzezleak: Ryan Reynolds, Melissa George.  
1974. urteko azaroaren 13an AEBetako Long Island estatuko Suffolk herriko poliziak larrialdi dei bat jaso zuten. Estilo kolonialeko etxe batetik jaso zuten deia. Bertaratu zirenean izugarizko sarraskia gertatu zela konturatu ziren. Familia bateko kide guztiak erahil zituzten. Egun batzuk geroago Ronald DeFeok guraso eta lau anaiak tirokatu zituela aitortu zuten. Etxean entzundako ahots misterioitsu batzuei jaramon eginez burutu zuela sarraskia adierazi zuten. Urtebete geroago bikote berri bat hasiko da etxean bizitzen.



Zuzendaria: Tod Williams.  
Antzezleak: Jeff Bridges, Kim Basinger.  
Jeff Bridges (2004ko Donostia Saria, artista bezala egindako ibilbideari) eta Kim Basingerrek ezkontza harreman baten ondarena eta ahusketa eszenaratuko dute. New York-en girotuta dago eta umeentzako liburu idazle bat eta bere emaztea dira protagonistak. Zoriontsuak ziren ezbehar batek zorigaiztoa ekarri zien arte. Orain, geratzen zaien alaba bakarra maitasunez zaintzen saiatzen dira. 2004ko Donostiako Zinemaldian Sail Ofizialeko emanaldiei itxiera emman zien film honek.

# Atzera hegira



**1943**. urteko erretratu zahar hau **Xabier Gorostizak** laga digu. Argazki honetan agertzen den taldea gose garaikoa da. Partiduak bukatu ostean, etxera eramaten zuten erropa zikina beraiak garbitzeko. Ia entrenatu gabe jokatzen zuten, baina hala ere, poztasun handiak eman zizkion Elgoibarko herriari. Argazki hau Arrasateko Maala futbol zelaian aterata dago. Egun honetan Mondragon taldearen kontra jokatu zuen Elgoibarrek. Esan digutenez, ez dira egun hartako emaitzaz gogoratzen. Gaur egun gauzak asko aldatu dira futbolean. Gogora ditzagun zein diren talde hartako jokalariek:

Goian, ezkerretik eskumara: **M. Riaño (t)**, **Barrenetxea "Borraren"**, **A. Arriola (t)**, **A. Oiarzun (t)**, **S. Gorostiza**, **P. Arsuaga**.

Behean, makurtuta ezkerretik eskumara: **A. Zubiaurre**, **A. Salaberria**, **J. Aginaga (t) (eibartarra)**, **P. Arosa eta G. Gabilondo**.



# AEK, tu transporte al Euskara



Euskara hizkuntza oso desberdina, berezia eta polita da: errazoi hauek nahikoa dira euskara ikasteko. Gainera, ez da edozein hizkuntza, geurea da eta gu jende gutxi gora. Horregatik altxor bat bezala zaindu behar dugu, eta zaintzeko, ikasi egin behar dugu.

ASCEN

## Udalaren laguntzaz:

- Langabetuek, gurasoek eta ikasleek matrikula erdia
- Beka sistema

## ¡Reserva tu plaza!

Elgoibarko **æk** euskaltegia  
Plaza Txikia, 3 - Tel.: 943 74 13 32  
elgoibar@æknet.net



bokatak

entsaladak

pizzak

gozoak

Astlehenean, urriak 3, 18:00-20:00

## INAUGURAZIOA

Errosario, 31 • ELGOIBAR • Tel.: 943 53 17 71





# ASKETA ERREFORMAK, S.L.

Maxpe, 3 behea - 20820 DEBA  
Tel.: 943 19 19 52 - Faxa: 943 19 24 60  
E-posta: asketa@telefonica.net  
www.asketa-reformas.com



Santa Klara, 26 • ELGOIBAR  
Tel.: 943 74 15 52  
606 43 11 19 - 606 43 11 20

**Espezialistak gara fatxada eta teilatuak errehabilitatzen**  
**Gehieneko kalitatea prezio onenean**



Altzolako bainuetxea

**Eskatu aurrekontua  
konpromisorik gabe!**



Arakistain, 2 • DEBA

**10 urteko bermea  
gure lan guztietan!**



Astillero kalea, 3 • DEBA



Eraikuntza berria • MENDARO



Zubiaga Plaza • MUTRIKU



**Valentine**  
Fatxaden linean liderrak

Valentine-n Valastic eta Valmic erabiliz margotua